

BIGARREN ATALA

(ÓRDENES, COSTUMBRES

Y CAPRICHOS)

Laburtzen hasi baino lehen, garrantzitsua da zergati (motivo) hitzaren definizio bat labur bat ematea: Zerbait egiteko, dagoen arrazoia,edo uste denean, arrazoia dagoela.

Dauden hiru zergati nagusiak, aginduak (órdenes), ohiturak, (costumbres), eta nahikeriak (caprichos) dira.

Aginduak, batzutan bete egiten ditugu, beldurrarengatik, eta beste askotan, afektua eta konfidantzarengatik. Aginduak betetzean, beti pentsatzen da, norberaren onerako direla, eta beste batzutan sariren bat itxaroten dugulako, betetzen ditugu.

Ohituren jatorria, gauzak era erosoago batean eramatearena da, baina beste askotan, besteek gudan egiten duten presioarengatik. Askotan hauek agindu bihurtzen ditugu. Adibidez, besteek dituzten gauzak erosiz, gu ez izateko, gauza horiek ez dituzten bakarrik.

Nahikeriak, bapatean agertzen diren zergatiak dira, eta norberaren barnekaldetik agertzen dira. Beti uste da, nahikeri bat betetzean, libreago garela, eta ez dugula egiten ohitura bat edo agindu bat betetzeagatik. Baina badaude kasuak, zerbait agintzen digutenea, alderantzizkoa egiteagatik, kontrakoa egiten duguna, hau da, aldrebez.

BOSTGARREN ATALA

(DESPIERTA, BABY)

Atal honen hasieran, eta ia bukaerararte, hitz egiten da, bizitza ona lortzeari buruz, eta atera daitekeen ondorioari argiena, da bizitza on hau, ez dela diruarekin eta boterearekin lortzen (Kanen adibidean agertzen den bezela). Bizitza ona ere ez, ez da Esauk egin zuena dilista platerrengaitik. Berak hori egin zuen, momentu hartan, horretan bakarrik pentsatu zuelako, eta hori uste zuelako zela onena momentu hartan. Baina horrengatik, ez zuen bizitza ona lortu, baizik eta etorkizunean beretzat izango ziren gauza guztiak galdu, dilista plater batengatik. Kaneren adibidean ere, antzeko gauza bat gertatzen da, baina pertsonekin. Kanek, pertsonak eta gauzak saldu zituen, dirua lortzeko asmoz, eta baita diru asko lortu ere. Baina diru hori, pertsonak erosteko, eta gauza onak erosteko erabili zuen, eta diruarekin ezin dira pertsonak haiek diren bezela erosi. Eta horretaz, beranduegi konturatu zen Kane. Konturatu zenerako, ez zuen lagunik, eta bera maite zuen inor. Adibide honekin, ikusten da, bizitza ona, pertsonen artean bakarrik eman daitekeela.

Beraz, nahiz eta Kane oso zuhurra eta oso argia izan negozioetarako, eta diru kontuetarako, hanka sartu zuen, bere bizitzarako inportanteena zen faktorean.

Idazleak dioen bezala, Kaneri eta Esauri gertatu zitzaiena ez gertatzeko, garrantzitsua da, atentzioa jartzea, egiten ditugun gauzetan.

HIRUGARREN ATALA

(HAZ LO QUE QUIERAS)

Etikaren okupazio nagusia, askatasuna da. Askatasuna hautatzea da, baina baita ere, konturatzea, hautatzen

zaudela. Beraz, hau, eramaten uztearen kontrako gauza da. Beraz, zerbait bidaltzen digutenean, birritan pentsatu behar da: lehenengoan, ia zergatik egiten dudan hau, eta bigarreanean, ia zergatik egiten diodan kasu, bidaltzen didanari. Gauza antzeko bat gertatzen da, ohiturekin: ¿zergatik egin behar dut beti egiten dudana?, eta nahikeriekin berdin gertatzen da, bigarreanean galdetzean.

Kapitulu honetan agertzen den idei nagusietako bat, moral hitzaren esanahia da. Moral, *mores* ahots latinotik dator, eta ohiturekin zerikusia du. Baina badaude ohitura txarrak, eta hauek immoral bezala esagutzen dira. Moral hitzaren esanahi zehatza hurrengo da: konportamendu eta arau multzoa, pertsonok, baliozkotzat hartzen ditugunak. Moralarekin zerikusia dute, on eta txar adjetiboek. Hitz hauek, ez dira bakarrik konportamendu moraletaz hitz egiteko erabiltzen, edo pertsonetaz bakarrik. Pertsona bat ona edo txarra den jakitea, ez da erreza. Batzuentzat, norbait ona izan daiteke egiten dituen gauzengatik eta beste batzuentzat, txarra, konportamendu bera haiekin izaten.

Baina ezin dezakegu jakin, norbait ona ala txarra den, bere ekintzengatik. Adibidez norbaitek gauza on bat egiteko intentzioa du, eta gauza hori, txarto irtetzen zaio, norbaiti gauza txar bat eginez, nahigabe.

LAUGARREN ATALA

(DATE LA BUENA VIDA)

Egin nahi duzuna esaldia aipatzean, lehentasun batzuk finkatu behar dira, eta jerarkia bat egin, orain nahi dudana, eta egiztan, etorkizunerako nahi dudana ezberdintzeko. Esauen adibidea aproposa da, hemen. Idazleak egin nahi duzuna horrekin, esan nahi du, bizitza ona (la buena vida) hautatzeko. Etika, ahalegin arrazional bat da, zelan bizi hobeto, jakiteko. Etikarengatik interesatzea merezi badu, bizitza ona gustatzen zaigulako da.

Idea garrantzitsu bat da, gizaki izatea, batez ere, beste gizakiekin erlazioak izatean datzala. Beraz, gizakientzako bizitza ona, beste gizakien artean ematen da. Bestela, ez da bizitza ona, ezta gizakien arteko bizitza ere.

Atal honetan agertzen den beste ideia garrantzitsu bat da, gizakia ez dela inoiz gizaki jaiotzen, eta ez dela inoiz gizakia izatera helduko, beste gizakien artean ez bada. Alderantziz animaliak, animalia jaiotzen dira. Gizakiengan hori gertatzen da, gizakia ez delako bakarrik errealitate biologiko bat, baizik eta errealitate kultural bat ere. Ez dago humanitaterik, ez badago kulturarik, eta ez badago, kulturaren oinarriak: lengoia. Esan behar da, humanizazio prozesu hau, erreziprokoa dela, hau da beste gizakiek ni gizaki egiteko, nik haiek ere gizaki egin behar ditudala ere.

LEHEN ATALA

(DE QUÉ VA LA ÉTICA)

Atal honetan, etika zer den esaten da, eta hitz honi definizio bat ematen zaio. Askatasun hitza zer den ere azaltzen da, hitz hau definituz.

Lehenik, askatasunari buruz hitz egingo dut. Beste animalietatik desberdinduz, gizakiok askatasuna dugu. Beste animaliak, biologikoki programaturik daudelako (natura itxia dute), eta dena era batera egiteko beharturik daudelako. Alderantziz guk, aukeran dugu gauzei baietz edo ezetz esatea, eta gauzetan baten baino gehiagotan, erratu gaitezke. Baina animalia bat erratzean, errakuntza horrek bizitza kendu ahal dio animalia horri. Askatasunari buruz hitzegitean, bi aklarazio egiten ditu liburuak:

a) *Lehena*: Gu inoiz ez gara izango askeak guri gertatzen zaiguna aukeratzeko, hau da ezin dugu aukeratu non jaio garen, noiz, ze guraso euki... baina bagara askeak gertatzen zaigunari era batera edo bestera erantzuteko.

b) *Bigarrena*: Bi gauza ezberdindu behar dira: Gauza bat da, gu libreak garela zerbait egitera ahalegintzeko, eta beste gauza ezberdin bat da, ahalegintzen garena egiten lortzea.

Idazlearen ustez, etika bizitzen jakiten edo bizitzearen artea, jakitea da.

SEIGARREN ATALA

(APARECE PEPITO GRILLO)

Atal honetan agertzen den lehen idei aipagarria, da, idazleak dioela, gure okupazio edo bizitzako obligazio bakarra, ergela (imbécil), ez izatea dela. Imbécil hitza, latinezko *baculus* hitzetik dator. Hitz honek, bastoi esan nahi du. Beraz ergelak, bastoia behar du ibiltzeko. Hau esatean, esan nahi dut, ergelak bere animoa duela ahulduta, edo makalduta eta horregatik esaten da, bastoia behar duela. Idazleak dioenez, bost ergel klase daude:

–Ezer ez zaiola inporta esaten duena;

–Dena nahi duena uste duena;

–Ez dakienak zer nahi duen, baina ez da horregatik kezkatzen;

–Nahi duena dakienak, eta kantitate gutxi, indar gabe nahi du;

–Indar gehiegiz nahi duenak, baina bere burua engainatu du.

Ergeltasunetik aterako gaituzten faktoreak, hurrengoak izan daitezke:

–Jakitea denak ez duela ezer axola, egiztan, gizalegez bizi nahi garelako.

–Adi egotera prest egon, egiten duguna, nahi duguna, den.

–Praktikaren bidez, moralerako gustu ona hartu, gauza batzuek, guri nazka emateko (adibidez, gezurrak esatea).

–Egiten ditugun gauzen erresponzable izan, dislulparik gabe.

Egoista izatea, norberarengan bakarrik pentsatzea da. Beraz egoista izan daiteke, ergela izan gabe: onena nahi duena beretzat.

Atal honen azken ideia da, ia nondik datozen gure aladurak. Idazleak dio, hauek gure askatasunetik datozela.

ZAZPIGARREN ATALA

(PONTE EN SU LUGAR)

Atal honetan agertzen den lehen gauza aipagarria, da, bizitza gizakizkoa (humana) egiten duena, gizakien artean gertatzea bizitza hau. Hau da, beste gizakiekin komunikatzen, hitz egiten, alkarrekin gauzak egiten, etabar. Etikari interesatzen zaiona da, zelan bizi ondo gizakizko bizitza hori, eta hori da bere espezialitatea.

Hurrengo ideia, Marco Aurelioren kasua da. Beraren ustez beste pertsonekin erlazio on bat izan behar zen. Baina bazekien ere, bazegoela jendea, ostu egiten zuela, eta gauza txarrak egiten zituela. Eta bi gauza oso garbi zituen berak:

–Lehenengoa: Nahiz eta lapurrek ostu, edo hiltzaileek hil... horregatik ez diote pertsonak izateari uzten, eta nahiz eta gaur horrelakoak izan, barriro on bihurtu daitezke.

–Bigarrena: Gizakien ezaugarri inportanteenetariko bat, imitazioarena da. Gizakiok hainbeste ez bagenu kopiatuko, denok hasi beharko genuke zerotik.

Atal honetako beste ideia bat da, arratoia jaio den gizakiarena, eta leoia jaio den gizakiarena. Hiru diferentzia nagusi daude bien artean: 1) Arratoi erakoa jaio denak, beti galdetuko du: zer gertatuko zait?, eta leoi erakoa jaio denak aldiz, zer egingo dut? 2) Arratoia beti ahalegintzen da, besteak bera maitatzen, horrela, bera bere burua maitatzeko kapaza izango da. Leoiak aldiz, bere burua maite du, beraz, besteak maitatzeko gai da. 3) Arratoia, beti dago prest besteen aurka gauzak egiteko, besteak berari gauza berdina ez egiteko. Leoiak aldiz, bere alde egiten du, besteen alde egiten duen bezala.

Atal honetako beste puntu aipagarri bat da, ia zelan tratatzen diren pertsonak pertsona moduan, hau da, gizalegez. Hau lortzeko, aski da bere barnean jartzea, hau da, arazoak eta gauzak, bere larruazalaren barnekaldetik ikusten saiatzea. Hau lortzean, bere eskubideak hartzen dira kontutan. Eta eskubideak faltan daudenean, arrazoiak ulertu behar dira.

Beraz, beste pertsona baten tokian jartzea, pertsona hori seriotan hartzea da.

ZORTZIGARREN ATALA

(TANTO GUSTO)

Atal honen lehen ideiak, sexuari buruz hitz egiten du. Jendeak moralitatearen inguruan hitz egiten duenean eta immoralitateari buruz hitz egiten hasten denean, sexuari buruz hitz egiten du jende kopuru gehienak.

Animalientzat, esperientzia sexualek, gauza batetarako bakarrik balio dute: espezieak bizirik irauteko. Gizakien kasuan, ez da horrela. Espeziea bizirik irauteko da, baina ez bakarrik horretarako. Esperientzia hauei, sinbolo eta errefinamendu batzuk batzen zaizkie, eta hauek gabe, gizakia ez da gizaki. Sexua espeziearen iraupenerako bakarrik erabiltzearen gero eta gehiago hurruntzen denean, animalitasun gutxiago du, eta gizakitasun gero eta gehiago.

Puritanoek, jendeari gozatzen ez uzten gozatzen dute. Beraientzat, gauza batek gustua ematen dauanean egitean, txarra da. Baina hau ez da egia. Puritanismoa, etikaren guztiz kontrariatua da. Bi hitz hauek, antonimoak bezalakoak dira.

Atal hau bukatzeko, dagoen azken ideia aipatuko dut. Hemen galdetzen da, ia zein den bizitzak eman ahal dugun saririk edo gratifikaziorik handiena. Eta lortu ahal dugun gauzarik handiena, poza da.